

Lanean zaudenean, akaso, zailagoa da».

Hortik dator, sarritan, gurasoen mesfidantza jokoarekiko. «Denbora asko eskatzen du jolaserako. Gero, gainera, zure pertsonaiaren eta garaiaren inguruan irakurri eta dokumentatu egin behar duzu, eta horrek ere denbora eskatzen dizu. Baina bitartean asko ikasten duzu. Historia esaterako», adierazi du. Beraz, sormena trebatzeaz gain, ikasi ere egiten da rol jokoan.

Hala ere, jolasak badu ospe txarrik, eta ospe hori zeri zor zaion argi dute rol jokalariek: Madrilen orain bizpahiru urte izandako hilketari hain zuzen — rol jokalaria batek lagun bat hil zuen —. Aitor Alvarezek ere, *El juego interminable* dokumentalaren egileak, onatzen du jokoak zalantza batzuk sortzea jendarengan: «Jolasa ezagutzen ez duen norbaiti zera esatea, bospasei lagun mahai baten inguruan elkartzen garela lauzpabost orduz, baren... uler dezaket arraroa iruditzea hori. Baina, bestalde, rol jokoaren berri komunikabideen bitartez izan du jendeak, eta egun batetik bestera, gai-

nera. Hilketa bat egon, eta bat-batean rol jokoaren berri izaten du jendeak. Ezjakintasuna dago, eta horrek ere eragina du jolasa onartzeko orduan».

Davidek, berriz, ez du uste jokoaren denik arazoa: «Begira, zoro batek bere zoramena rol jokoaren bitartez kalera-tu zuen, baina beste nolabait ere egin zezakeen hori», gehitu du gero.

Norbera eta pertsonaia ezberdindu

Gakoa zein den garbi eduki behar da: pertsonaia eta norbera ez dira bat. «Antzeztu egiten duzu, eta jolasean zure kidearekin haserre bazaude ere, amaitzen denean hor bukatzen da haserre. Beraz, bazara jolasean, baina ez errealitatean», esan du Davidek.

Istorio gehienak abenturazkoak dira, misteriozkoak. Erdi Aroa eta Ciberpunk istoriak nagusitzen dira hala ere. Baina, dena den, edozelakoa izan daiteke. Dagoeneko rol liburu ugari daude, liburuen bitartez aurreratzen baitira istorioak. Aukera zabala da oso, gustu guzietarako.

Gero eta gazte gehiago jolasten dira rolean, eta gehienak mutilak dira: «Zergatik? Bada, ez dakit, horixe jakin nahiko genuke guk», dio Davidek umorez. Misterio eta zalantza guztiak hausteko jardunaldietarako gonbita egin du gero. Ikustea baita horretarako biderik onena.

'Rol jokoak, estrategia eta simulazioa. Donostiako 8. Jardunaldiak'

Filmak, Loiolako kultur etxean

Astelehena, abenduak 27

• *La vida de Brian*, 09:30etan, eta *Los caballeros de la Tabla Cuadrada*, 11:30etan.

Asteartea, abenduak 28

• *Aliens*, 09:30etan eta *Matrix*, 11:30etan.

Asteazkena, abenduak 28

• *Terroríficamente muertos*, 09:30etan; *El ejército de las Tinieblas*, 11:30etan eta 13:00etan *El juego interminable* dokumentala.

Goizetan, rol jokoak Loiolako kultur etxean izango dira, 09:00etatik 14:00etara. Arratsaldeetan, berriz, Donostiako Craj eraikuntzan, Anoetan. Ordua: 17:00etatik 20:00etara. Arratsaldeetan, estrategia eta simulazio jokoak ere izango dira.

Izen ematea

Noiz: gaur, Donostiako Craj eraikuntzan 17:00etatik 20:00etara.

Prezioa: jolas bakoitzeko 100 pezeta (4 libera).

Antolatzaileak: Ares, Atlas eta Tempus rol elkarteak, Donostia Kultura eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz.

Informazioa: www.simbiosis.ibercom.com/ares/



GORA HERRIAK

